

Biztanleriaren Berezko Mugimendua.
Jaiotzak, heriotzak eta ezkontzak.
2022. urtea. Behin betiko datuak.

2022an jaiotzak % 6,9 jaitsi dira, eta heriotzak % 9,5 areagotu

2023ko azaroaren 22a

Biztanleriaren hazkunde begetatiboak 1.558 pertsonako saldo negatiboa izan du

Emakume bakoitzeko batez besteko seme-alaba kopurua 1,26 izan zen, aurreko urtean baino hamarren bat txikiagoa

Lehenengo amatasunaren batez besteko adina 32,1 urte da, eta 35 urte edo gehiago dituzten amak % 42,1 dira

Jaiotzako bizi-itxaropena 81,3 urtekoa da gizonen kasuan eta 86,3 urtekoa emakumeen kasuan; hamarren bat igo da gizonen kasuan eta egonkor mantendu da emakumeen kasuan

Ezkontzak % 20,8 igo dira aurreko urtearen aldean

JAIOTZAK

Bilakaera. 2022an, Nafarroan bizi ziren amen 4.759 jaiotza (bizirik jaiotak) kontabilizatu ziren, 2021ean baino 354 gutxiago, hau da, aurreko urtean baino % 6,9 gutxiago. Duela hamar urteko jaiotzekin alderatuz gero, ia % 30 jaitsi dira.


Azken urteotan, jaiotzen kopuruaren beherakadarekin batera, seme-alabak izateko adinean dauden emakumeen populazioa ere jaitsi egin da, eta amatasun-adina ere atzeratu egin da.

Azken hamarkadan, 25-40 urteko emakumeen populazioa ia % 20 jaitsi da. 2009an hasitako beheranzko joeraz ari gara, 80ko hamarkadan eta 90eko hamarkadaren lehen erdian jaiotako belaualdi gutxiagok osatzen dutelako adin-tarte hori.



1. GRAFIKOA

Jaiotzak eta 25-40 urte bitarteko emakumeen populazioa. Nafarroa 2008-2022




Iturria: Nastat. Jaiotzen eta Ugalkortasunaren Estatistika. EINEkin elkarlanean. Biztanleria-zifrak urte bakoitzeko uztailearen 1eko biztanleriaren estatistika jarraitutik datoz.

Ugalkortasun-indize sintetikoa. Emakume bakoitzeko batez besteko seme-alaba kopurua 1,26 izan zen, aurreko urtean baino hamarren bat txikiagoa 2. grafikoan ikus dezakegu azken bosturtekoan emakume bakoitzeko batez besteko seme-alaben kopuruak beherazko joera duela.

2. GRAFIKOA

Jaiotzak eta batez besteko seme-alaba kopurua emakumeko (UIS). Nafarroa 2008-2022



Iturria: Nastat. Jaiotzen eta Ugalkortasunaren Estatistika. EINEkin elkarlanean.

Batez besteko amatasun-adina. 33,0 urtekoa da, ia aurreko urteko bera. Lehen amatasunari erreparatzen badiogu, berriz, batez besteko adina 32,1 urtekoa da, eta azken hamar urteetan 1,1 urteko atzerapena izan du.

35 urte edo gehiagorekin ama diren emakumeen taldeak gorakada argia izan du azken hamabost urteetan: 2008an % 28,8 ziren, eta 2022an % 42,1.




CONTACTO / HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

3. GRAFIKOA

Jaiotzak, amaren adin-taldeen arabera. Nafarroa 2008-2022.



Iturria: Nastat. Jaiotzen eta Ugalkortasunaren Estatistika. EInekin elkarlanean.

Jaiotza-ordena. Jaiotza-ordena. Jaiotzak ordenaren arabera banatuz gero, jaiotzen % 45,3 izan dira lehenengo seme-alabak, % 36,0 bigarren seme-alabak eta gainerako % 18,7 hirugarren edo hortik aurrerako seme-alaben jaiotzak. Banaketa hori egonkor mantendu da urteak igaro ahala.

Hala ere, alde nabarmenak daude nazionalitateari dagokionez. Atzerriko amen kasuan, lehen seme-alabak jaiotzen % 34,7 izan ziren, % 34,4 bigarren seme-alabak eta gainerako % 30,9 hirugarren edo hortik aurrerako seme-alaben jaiotzak. Hala ere, Espainiako nazionalitatea duten amentzat, jaiotzen % 49,3 lehen seme-alabek dira.

Amen egoera zibila. Ama ezkonduak ama guztien % 58,6 dira 2022an.

Ezkondu gabeko amen jaiotzen ehunekoak gora egin du azken hamar urteetan: % 30,1etik % 41,4ra pasatu da. Gainera, aipatu behar da ezkondu gabeko emakume gehienak izatezko bikotean bizi direla (% 66,67 2022an).

Atzerriko nazionalitatea. Nafarroan jaiotzen diren hiru haurretik ia bat atzerriko nazionalitatea duen amaren seme-alaba da (% 27,1).

Atzerriko ama guztietatik, erdiak baino zertxobait gutxiago Afrikako herrialde batekoak dira, eta % 28,5ek Amerikako herrialdeetako nazionalitatea dute.

Espainiar nazionalitatea duten amen batez besteko adina 2,7 urte handiagoa da atzeritarrena baino (azken hori 31,0 urtekoa da).




CONTACTO / HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

4. GRAFIKOA

Amatasunaren batez besteko adina, nazionalitatearen arabera. Nafarroa 2008-2022.



Iturria: Nastat. Jaiotzen eta Ugalkortasunaren Estatistika. EInekin elkarlanean.

1. TAULA

Jaiotza- eta ugalkortasun-adierazleak. Nafarroa. 2012-2022.

Urtea	Bizirik jaiotak	Jaiotza-tasa gordina (%)	Ugalkortasun-indize sintetikoa	Batez besteko amatasun-adina	Lehen amatasunaren batez besteko adina
2012	6.731	10,5	1,46	32,2	31,0
2013	6.075	9,5	1,36	32,4	31,1
2014	6.183	9,7	1,44	32,3	31,2
2015	6.007	9,4	1,44	32,4	31,2
2016	5.894	9,2	1,45	32,5	31,2
2017	5.746	8,9	1,45	32,5	31,3
2018	5.398	8,3	1,38	32,5	31,2
2019	5.371	8,2	1,39	32,6	31,3
2020	5.036	7,6	1,31	32,7	31,4
2021	5.113	7,7	1,36	33,0	31,8
2022	4.759	7,1	1,26	33,0	32,1

...jarraipena

Urtea	Ezkondu gabeko amarena (jaiotzen %)	Atzerriko amarena (jaiotzen %)	1. tarte (jaiotzen %)	2. tarte (jaiotzen %)	3. tarte edo hortik aurrerakoa (jaiotzen %)	Erditze anizkoitzak (jaiotzen %)
2012	30,1	19,6	46,1	39,4	14,5	5,8
2013	33,3	17,6	46,9	38,9	14,2	5,0
2014	34,2	16,5	47,6	38,8	13,6	5,6
2015	33,8	18,1	47,6	39,7	12,8	5,4
2016	35,5	17,8	44,0	40,9	15,0	4,5
2017	36,8	21,0	43,6	39,7	16,7	4,6
2018	37,2	22,6	43,3	38,8	17,9	3,5
2019	37,8	25,3	42,0	38,9	19,2	3,7
2020	39,5	26,5	43,4	38,2	18,3	3,1
2021	41,0	24,7	44,6	37,3	18,1	3,2
2022	41,4	27,1	45,3	36,0	18,7	3,5

Iturria: Nastat. Jaiotzen eta Ugalkortasunaren Estatistika. EInekin elkarlanean.



CONTACTO / HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

HERIOTZA-TASA

Bilakaera. 2022an Nafarroan 6.317 heriotza erregistratu dira, aurreko urtean baino % 9,5 gehiago (546 heriotza gehiago).

2. TAULA

Heriotzak Nafarroan, hilabetearen arabera. 2019tik 2022ra.

Hilabeteak	2019	2020	2021	2022	2022-2021 aldakuntza (%)
Urtarrila	558	572	541	655	21,1
Otsaila	465	510	449	516	14,9
Martxoa	465	795	482	529	9,8
Apirila	454	862	478	450	-5,9
Maiatza	449	439	456	504	10,5
Ekaina	464	407	415	466	12,3
Uztaila	472	422	444	665	49,8
Abuztua	438	460	519	531	2,3
Iraila	394	483	390	437	12,1
Urria	450	581	511	492	-3,7
Azaroa	472	576	507	499	-1,6
Abendua	487	555	579	573	-1,0
Guztira	5.568	6.662	5.771	6.317	9,5

Iturria: Nastat. Heriotzen eta Heriotza-tasaren Estatistika. EINEkin elkarlanean

Sexuaren arabera. Heriotzen % 51,0 (3.224) gizonezkoenak izan ziren, eta gainerako % 49,0 (3.093) emakumezkoenak.

Bizi-itxaropena jaiotzean. Gizonen kasuan 81,3 urtekoa izan zen, eta emakumeen kasuan 86,3 urtekoa; hau da, 0,1 urteko hazkundera izan da gizonen kasuan, eta aurreko urtekoaren antzekoa emakumeen kasuan.

Gainera, unean uneko heriotza-tasaren baldintzekin bat etorriz, 2022an, 65 urteko pertsona batek 19,4 urte gehiago biziitza espero dezake gizona bada, eta 23,4 gehiago emakumea bada. Aurreko urtean lortutakoen antzeko datuak dira.

Haurren heriotza-tasa bizirik jaiotako milako 2,5 heriotzakoa da. Tasa hori, 2006. urtetik, bizirik jaiotako milako 3,0 heriotzaren azpitik dago.



3. TAULA

Heriotza-adierazleen bilakaera. Nafarroa. 2012-2022.

Urtea	Heriotzak	Heriotza-tasa gordina (‰)	Haurren heriotza-tasa (‰)	Hiltzeko batez besteko adina		Bizi-itxaropena jaiotzean		Bizi-itxaropena 65 urterekin	
				Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
2012	5.376	8,4	1,7	76,8	84,4	80,7	86,2	19,4	23,3
2013	5.323	8,4	1,9	77,1	83,8	80,6	86,4	19,4	23,4
2014	5.511	8,7	2,3	77,1	84,1	80,7	86,1	19,5	23,4
2015	5.680	8,9	2,7	78,2	85,1	80,9	86,3	19,5	23,4
2016	5.727	9,0	2,7	78,5	84,8	81,1	86,4	19,4	23,5
2017	5.844	9,1	2,4	78,7	85,0	81,1	86,4	19,3	23,5
2018	5.819	9,0	2,1	79,0	85,3	81,3	86,6	19,6	23,5
2019	5.568	8,5	2,0	78,6	85,2	81,7	86,8	20,0	23,7
2020	6.662	10,1	2,0	79,3	85,5	81,4	86,3	19,5	23,4
2021	5.771	8,7	2,3	78,7	84,6	81,2	86,3	19,4	23,4
2022	6.317	9,5	2,5	79,1	85,4	81,3	86,3	19,4	23,4

Iturria: Nastat. Heriotzen eta Heriotza-tasaren Estatistika. ElNekin elkarlanean.


HAZKUNDE BEGETATIBOA

Hazkunde begetatiboa. Nafarroan bizi den biztanleriaren hazkunde begetatiboa (Nafarroan bizi den amarengandiko jaiotzen eta Nafarroan bizi direnen heriotzen arteko aldea) negatiboa izan da 1.558 pertsonatan 2022. urtean.

Espainia. Estatuan, oro har, Nafarroa da 2022an jaiotza-tasaren jaitsiera handiena izan duen autonomia-erkidegoa (-% 6,9), eta heriotza-tasaren igoera handiena izan duen bigarrena (+% 9,5), Kantabriaren atzetik. Nabarmentzekoa da, halaber, bizi-itxaropen handiena duen bigarren autonomia-erkidegoa dela, Madrilgo Erkidegoaren atzetik.

5. GRAFIKOA

Hazkunde begetatiboa. Nafarroa 2005-2022.



Iturria: Nastat. Nafarroako Biztanleriaren Berezko Mugimendua.



CONTACTO / HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es


848 42 34 00

EZKONTZA-TASA

Bilakaera. 2022an, bizilekua Nafarroan finkatu zuten bikoteen 2.389 ezkontza egin ziren, aurreko urtean baino % 20,8 gehiago.

6. GRAFIKOA

Bizilekua Nafarroan duten bikote ezkonduak, ezkontza-urtearen arabera. Nafarroa 2008-2022



Iturria: Nastat. Ezkontza-tasaren eta Ezkontzen Estatistika. EINekin elkarlanean.


Sexuaren arabera. Ezkontza horien guztien % 2,8 sexu bereko bikoteei dagokie (68 ezkontza): 44 emakumeen artean eta 24 gizonen artean.

Nazionalitatea. Ezkontzideen nazionalitateari dagokionez, % 82,3tan bi ezkontzideek nazionalitate espainiarra zuten, eta % 2,6tan bi ezkontzideek atzerriko nazionalitatea zuten.

Ezkontzeko batez besteko adina. Gizonen batez besteko adina 35,8 urtekoa da, eta emakumeen batez besteko adina 34,1 urtekoa. Hainbat urtez gora egin ondoren, 0,1 eta 0,4 urte jaitsi da, hurrenez hurren, aurreko urtean erregistratutako adinekiko.

7. GRAFIKOA

Bizilekua Nafarroan duten bikote ezkonduak, adin-taldeen eta sexuaren arabera. 2022. urtea



Iturria: Nastat. Ezkontza-tasaren eta Ezkontzen Estatistika. EINekin elkarlanean.



CONTACTO / HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es


848 42 34 00



Lotura mota. 2008 ezkerro, ezkontza zibilak katolikoak baino gehiago dira. Eta hamar ezkontzatik zortzik (% 80,9) ezkontza eskusiboki zibila aukeratzen dute.

8. GRAFIKOA

Ezkontzak, ezkontzeko moduaren arabera. Nafarroa 2005-2022



Iturria: Nastat. Ezkontza-tasaren eta Ezkontzen Estatistika. EInekin elkarlanean.

Aurreko egoera zibila. Loturen % 76,4 ezkongabeen artean izan ziren; % 23,4, gutxienez ezkontide bat dibortziatua duten bikoteena, eta gainerako % 0,2a bestelako ezkontzak izan dira. Oro har, ezkongabeen ezkontza-tasak gora egin du azken urtean (2,4 puntu).

4. TAULA

Ezkontza-tasaren adierazleak. Nafarroa. 2012-2022.

Urtea	Ezkontzak	Sexu desberdinekoak	Sexu berekoak	Ezkontza-tasa gordina (%)	Ezkontza-tasaren indize sintetikoa (emakumeak)	Ezkontzeko batez besteko adina	
						Gizonak	Emakumeak
2012	2.263	2.232	31	3,5	0,49	33,7	31,8
2013	2.123	2.097	26	3,3	0,47	33,8	32,1
2014	2.322	2.301	21	3,7	0,52	34,3	32,7
2015	2.666	2.616	50	4,2	0,60	35,1	33,4
2016	2.423	2.383	40	3,8	0,55	34,9	33,3
2017	2.330	2.295	35	3,6	0,54	34,7	33,4
2018	2.100	2.050	50	3,3	0,49	34,7	33,3
2019	2.110	2.050	60	3,2	0,47	35,1	33,5
2020	1.309	1.279	30	2,0	0,27	35,7	34,5
2021	1.978	1.932	46	3,0	0,44	35,9	34,5
2022	2.389	2.321	68	3,6	0,53	35,8	34,1



CONTACTO / HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00



...jarraipena

Urtea	Ezkontza zibilak (guztizkoaren gaineko %)	Ezkontideen nazionalitatearen arabera			Ezkontideen aurreko egoera zibila		
		Biak nazionalak	Bat atzerritarra	Biak atzerritarrak	Ezkontgabea	Gutxienez bat dibortziatua	Besteak
2012	62,1	83,2	13,0	3,8	81,5	18,0	0,5
2013	65,4	84,4	12,4	3,3	82,1	17,2	0,7
2014	69,6	88,8	9,6	1,7	82,3	17,2	1,0
2015	75,5	88,5	9,7	1,8	79,7	19,8	0,6
2016	74,7	88,7	10,1	1,2	79,4	20,0	0,6
2017	75,7	87,0	11,6	1,4	77,6	21,7	0,7
2018	75,1	85,5	13,1	1,4	78,5	20,8	0,7
2019	80,2	84,9	13,4	1,7	75,4	24,2	0,4
2020	90,5	80,2	16,4	3,4	72,2	27,4	0,4
2021	83,6	83,8	13,8	2,5	74,0	25,8	0,2
2022	81,5	82,3	15,1	2,6	76,4	23,4	0,2

Iturria: Nastat. Ezkontza-tasaren eta Ezkontzen Estatistika. EINEkin elkarlanean.



CONTACTO / HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00





METODOLOGIARI BURUZKO OHARRA

Nafarroako Estatistika Erakundeak (Nastat) 2022ko **Biztanleriaren Berezko Mugimenduaren** behin betiko emaitzak aurkezten ditu. Mugimendu horrek bateratu egiten ditu jaiotzen eta ugalkortasunaren, heriotzen eta hilkortasunaren, eta ezkontzen eta ezkontza-tasaren estatistikak. Informazio-iturri primarioa erditzeen, ezkontzen eta heriotzen buletin estatistikoak dira, Nafarroako erregistro zibiletan jasotakoak. Buletin horietan, jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak kontabilizatzen dira, eta horiek Nafarroan bizi den biztanleriarekin lotzen dira.

Behin-behineko datuek edo datu aurreratuek ez bezala, kontuan hartzen dituzte Nafarroan inskribatutako gertaerak, pertsona horren bizilekua edozein dela ere, behin betiko emaitzak **Nafarroan bizi diren pertsonen** gertaerei buruzkoak dira.

Nastatek estatistika hau egiten du Estatistika Institutu Nazionalarekin lankidetzan.



INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

Biztanleriaren Berezko Mugimendua. Jaiotzen eta Ugalkortasunaren Estatistika.
Ezkontzen eta Ezkontza-tasaren Estatistika. Heriotzen eta Heriotza-tasaren Estatistika.



CONTACTO / HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

